# ARRASATEARREK UDAL TRAMITEAK EGIN AHAL IZATEKO TRESNA BERRIAK

## 1. SARRERA

Arrasateko Udalak, berrikuntzaren eta zerbitzuen kalitatearen aldeko apustuarekin jarraituz, herritar guztien eskura jarri du atari hau, kontsulta eta eragiketa pertsonalak Udaletxera joan gabe egin ditzaten.

Tramiteak atalean gurekin ohiko tramiteak egiteko jakin beharreko informazioa duzu eskura.

Tramite bakoitzean zure eskaeraren kudeaketa eta ebazpenaren arduradunak nortzuk diren, non eta nola kudeatu, aurkeztu beharreko dokumentazioa, datak eta aurkezpen epeak, eta bestelako informazio gehigarriari buruzko informazioa aurkituko duzu, interesatzen zaizun tramitea aurrez informazio osoa izanda egin dezazun.

Gainera, kudeaketa errazteko, tramitazioa hasteko Erregistro Elektronikoa eskaintzen da. Komunikazio bide azkarragoa eta zuzenagoa izango duzu, pertsonalki udal bulegoetara joan gabe, etxetik tramiteak egin ahal izateko.

Erregistro Elektronikoaren bidez egindako edozein tramite egin ondoren, frogagiri bat lortuko duzu, tramitazioa aurrez aurre egingo bazenu bezalako balio juridikoa duena. Eta gainera, edozein momentutan sortutako espedientearen tramitazioaren berri izan edota jasotako dokumentu digitalak balioztatu ditzakezu, zure datu pertsonalen konfidentzialtasuna, igorritako datuen benetakotasuna eta zure ziurtagiri digitalarekin egindako ekintzen segurtasun juridikoa bermatuz.

Postontzi bat ere edukiko duzu. Bertan, eskatutako tramiteek sortutako jakinarazpen guztiak utziko dizkizugu, helburu horretarako zuk baimentzen diguzun posta elektronikora bidalitako mezuen bidez.

Udaletxea eskura izango duzu eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan, urte osoan zehar, denbora-mugarik gabe, ordutegi eta jende-ilararik gabe.

## 2. ARRASATEKO HERRITARREN ATARIA

### 1 Herritarren ataria

Atal honetatik online hasi daitezke tramiteak (adibidez: eskaera orokorra, faktura elektronikoa, online ordainketa).

Horretarako, sartu Arrasateko Udalaren webgunean eta sakatu online zerbitzuetan. Zuzenean ere joan zaitezke Herritarren Atarira hurrengo web helbidea idatzita: http://ataria.arrasate.eus







**GiltzaOn** atalean sakatuz identifikatuko gara.

Zalantzarik izan ezkero laguntza atalean sakatu.


ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Castellano
Atarian bilatu
SARRERA
ARRASATE
INFORMAZIO PRAKTIKOA
UDALA
TRAMITEAK ONLINE
Sarrera / Tramiteak online
Tramiteak online
Herritarren Ataria: sarbide orokorra
Giltza ON
Herritarraren Atariaren sarrera nagusian identifikatu zaitez, edo behean agertzen den tramitean zuzenean sakatu.
Sartu
Eskaera orokorra
Zure eskaera lotutako tramiteekin bat ez badator, atal honetan eskaera bideratzea izango duzu.
Sartu
Kexak eta iradokizunak
Arrasateko udalarekin harremanetan jartzea zure iradokizunak edo kexak plazaratzeko.
Sartu
Diru laguntzak
Udalak eskaintzen dituen laguntza zerbitzu eta diru laguntza ezberdinak aurkitu ditzakezu.
Sartu
Biztanleen errolda
Biztanleen erroldari buruzko tramiteak burutu ditzakezu (helbide aldaketa, datuen aldaketa, ziurtagiriak eskatzea,...)
Sartu
Baimenak eta lizentziak
Udalak eman beharreko hainbat baimen eskatu ditzakezu (obra baimenak, lokalak irekitzeko, txakurren lizentziak,...)
Sartu
Udal areto eta materiala
Udalak herritarren eskura jartzen dituen aretoak eta materialak lagatzeko eskaerak egin ditzakezu
Sartu
Online ordainketak
Udalari egin behar dizkiozun ordainketak online plataforma baten bidez egin ahal izango dituzu.
Sartu
Erreziboak
Udalak igorritako ordainagiriak kontsulta ditzakezu (ura, zaborra, OHZ/IBI, ibilgailuak,...)
Sartu


Lan eskaintzak
Udalaren lan eskaintza publikoaren informazioa eta izen emateko sistema. Beste lan eskaintzen informazioa.
Sartu
Kontratazioa
Kontratazioarekin lotutako hainbat tramite: Kontratatzailearen Profila, Kontratuen Erregistroa..
Sartu
Izen emateak
Atal honen bitartez hainbat ekintza, ikastaro eta lehiaketetan izena eman ahal izango duzu
Sartu
Kirolak
Udal kirol instalazioetako zerbitzuak ikusi eta tramitatu ahal izango dituzu.
Sartu
Denak
Hainbat kategoriatako espediente mota tramitatzeko aukera ematen du.
Sartu
Laguntza
Tramiteak online egiteko prozedurari buruzko dokumentazioa eta laguntza: identifikazio sistemak, prozedurak nola burutu, segurtasun aholkuak...
Sartu

# 3. IDENTIFIKAZIO SISTEMAK

## 1 B@KQ sistema eletronikoa edo itsasontzi jokoa

Atal honetan B@kQ edo itsasontzi jokoa zertan den azalduko dugu, nola igorri eta aktibatu.

### *1.1 Zer da B@KQ edo itasontzi jokoa*

Bitarteko berri bat da, identifikazio elektronikoduna. Oso erabilerraza da, eta aukera ematen du administrazioekin harremanetan jartzeko telematikoki.

Soluzio honek abantaila ugari eskaintzen du:

- Onartzen da sinadura elektroniko aurreratu gisa.
- Ez du behar software gehigarririk.
- Ez du behar irakurgailurik.
- PINa ahaztuz gero, aukera ematen du hura berreskuratzeko.

Zer egin behar dugu ziurtagiria lortzeko?

Ziurtagiri kualifikatua denez, **identifikazio presentziazkoa** behar du, edota baliozko beste bitarteko bat, identifikazio elektronikoduna.

### *1.2 B@KQ-ren edo itsasontzi jokoaren jaulkitzea eta aktibatzea*

1. BAZen identifikatu eta eskaera formularioa sinatu ostean itsasontzi jokoa jaulkitzen hasi zaitezke. Orain aktibatu egin behar duzu sortu berri den kontu berria, hurrengo pausoak jarraituz (posta elektroniko bat eta SMS bat jasoko dituzu biak batera):
    - **Posta elektronikora mezua iritsiko zaizu**. Bertan aurkituko dituzu, batetik koordenatuak (Osakidetzako edo Izenpeko txartela izanez gero, konturatuko zara txartel atzean dauden koordenatuak eta jaso berri dituzunak berdinak direla), eta, bestetik, esteka bat igortze eta aktibazio prozesurako, eta horren bitartez aldatu beharko duzu pasahitza (SMS mezu baten bidez jasoko duzu).
    - **Pasahitza jasoko duzu telefono mugikorrean** SMS mezu bidez (segurtasunari begira, pasahitz hori aldatu egin beharko duzu). Pasahitz hori erabili beharko duzu aurreko posta elektronikoaren aktibazio estekan.
2. Jaso duzun estekari jarraituz, egiaztatu beharko dituzu zure datu pertsonalak, eta onartu erabilera baldintzak eta harpidedun kontratua.
3. Lehen aldiz zure burua autentifikatu beharko duzu, hodeiko sinadura ziurtagiria igorri ahal izateko. Prozesua batzuetan ezin da egin mugikorreko nabigatzaile batzuekin. Halakoetan, saiatu ordenagailu bidez.
4. Hori guztia egin ostean, aktibatuko zaizu itsasontzi jokoa, eta hori horrela dela baieztatzeko, mezu bat iritsiko zaizu posta elektronikora.

Mezuak jasota daude ERANSKINAK atalean.

B@kQ edo itsasontzi jokoko koordenadak berriro jasotzeko aukera.

https://se




rvicios.izenpe.com/jbbak/mostrarWelcome.do

**Aurretik Izenpe** herritarren txartela **baldin badaukagu**, eskatu beharko dugu B@kQ edo itsasontzi jokoaren aktibazioa, bertan dauden letra eta zenbakiak erabili ahal izateko.




Txartel honek **aurrean du identifikazio zenbakia**, eta **atzean letra eta zenbakiak**; azken horri deitzen diogu itsasontzi jokoa.



## 2 Beste erakunde batzuetako tramite interesgarriak B@KQ erabiliz

- **Eusko Jaurlaritzako tramiteetan**

  https://euskadi.eus/abisu_teknikoa/tramiteen-epeak-zabaltzea-izandako-gorabehera-teknikoa-dela-eta/y22-abisuak/eu/

- **Osakidetzako Osasun Karpetan**

  https://micarpetasalud.osakidetza.net/b65CarpetaSaludWar/login/inicio?locale=eu

- **Gipuzkoa Foru Aldundia**

  https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/

- **Bizkaiko Foru Aldundia**

  https://appsec.ebizkaia.eus/SEEA002C/sedeAutenticarAcceso?idioma=eu_ES

- **Arabako Foru Aldundia**

  https://e-s.araba.eus/wps/portal/DFSE/Ciudadania/!ut/p/c5/04_SB8K8xLLM9MSSzPy8xBz9CP0os3j3wGBjUx9TEwP3UC8XA89gA4MAdzdDYwNvU_3g1GL9cJAus3hnd0cPE3MfAwN_ozADAyM_0-BAg9BgYwNPY4i8AQ7gaKDv55Gfm6pfkO3lUe6oqAgAKNFm7Q!!/dl3/d3/L0lHSkovd0RNQUprQUVnQSEhL1lCZncvZXU!/

- **Metaposta**

  https://www.metaposta.com/eu/index.html

# 4. ADIBIDEA: ESKAERA OROKORRA ONLINE ZELAN EGIN ARRASATEKO UDALEAN

## 1 Identifikazioa zelan egin

Hurrengo pausoetan azalduko dugu eskaera orokorra zelan egin.



Sakatu **GiltzaON**.




Sakatu **saioa hasi**, eta leihatila hau agertuko zaigu.




**Erabiltzailea, pasahitza eta itsasontzi jokoa** sakatu.




**Sartu NAN zenb. eta pasahitza**.

Ondoren, sartu itsasontzi jokoko koordenadak.




Koordenatuak sartuta gero, gure izen-abizenak agertuko dira hurrengo pantailaren gainaldean, horrek esan gura du identifikaturik gaudela.




Hemendik aurrera eskaera orokorra tramitatzen hasi zaitezke.

## 2 Eskaera orokorra zelan egin




Hurrengo pausuan, pantailaren eskuman eta behean, hiru sinbolo txiki ikusiko ditugu:

-  Leihatilako tramitazioa.
-  Sinadura elektronikorako txartelaren bidez.
-  Erabiltzailearen eta pasahitzaren bidez.

Adierazten digute tramitea zelan egin daitekeen. Sakatu **Ikusi** eta pantaila hau agertuko zaigu.




Hasi tramitazio elektronikoa.

1. **Urratsa: datuak osatzea**

   Automatikoki agertuko dira gure datu pertsonalak idatzita. Daturen bat zuzendu edo eranstea gura izanez gero, hemen egin dezakezu.




2. **Urratsa: formularioa osatzea**

   Urrats honetan formulario bete behar dugu. Asteriskodun laukitxoak derrigorrean bete behar dira.


Eskaera S1611: Eskaera orokorra
Eskabide orri orokorra
1.go urratsa
Datuak
2. urratsa
Formularioa
3. urratsa
Eskabidea
4. urratsa
Eranskinak
5. urratsa
Sinadurak
6. urratsa
Laburpena
Zerrendara itzuli
Eskaera ezeztatu
Aurrekoa
Hurrengoa
Aurkezten duenaren datuak
Izena:
Lehenengo abizena:
Bigarren abizena:
NAN:
Helbidea:
Herria:
Posta kodea:
Lurraldea:
Telefonoa:
emaila:
Eskatzailearen datuak
Agiria aurkezten duena eta eskatzailea pertsona bera bada, ez da beharrezkoa kategoria hau betetzea. Pertsona bera ez bada, derrigorrez atxikitu beharko da Eskatzailearen NANa eta ordezkaritza baimena.
Izena:
Lehenengo abizena:
Bigarren abizena:
NAN:
Telefonoa:
emaila:




3. **Urratsa: eskaera**

   Behin formulario beteta eskaera sortuko da, eta zenbaki bat egokituko zaio.




Aukera dugu eskaera deskargatzeko.



4. **Urratsa: eranskinak**

   Tramitean eskatzen denean eta dokumenturen bat erantsi behar baldin badaukagu, hemen egingo dugu.




5. **Urratsa: sinadurak**

   Urrats honetan aukera dugu eskaera elektronikoki sinatzeko.









cau-izenpe@izenpe.eus

6. **Urratsa: laburpena**

Urrats honetan aukera dugu tramitearen laburpena ikusteko.






Amaitu sakatu.

Bukatzeko, agertuko zaizu eskaera erregistratu dela.




Mezua iritsiko da gure postontzi elektronikora, eta agertuko da tramitazioa erregistratu dela; bertan klik egin eta hurrengo pantaila agertuko zaizu. Bukaeran dokumentua deskargatu ahal izango duzu.





Iker Loiti Arruti | Irten | Castellano | Euskera

# Herritarren Ataria

Administrazio elektronikoa

Herriko Plaza, 1
Tfnoa: 943252000
IFZ: P2005900B

Arrasate | Tramiteak | Gune pribatua | Dokumentu publikoak | Egiaztatzailea

Gune pribatua / Erregistratutako eskaerak / A/17-13776 - ABENDUAREN 29 AN TXOKOLATADA BAT EGITEKO BAIMEN ESKAERA.

## Eskaeraren deskribapena

### 1 - Eskaerarekin hasitako erregistroaren xehetasunak

**Informazio Orokorra**

**Erregistro kodea:** A/17-13776

**Gaia:** ABENDUAREN 29 AN TXOKOLATADA BAT EGITEKO BAIMEN ESKAERA.

**Data:** 2017/12/15 11:56

**Erregistroaren titularra**

**Izen osoa:** Iker Loiti Arruti

**Helbidea:** Nafarroa Etorbidea

**Herria:** Arrasate

**Posta elektronikoa:** iloiti@gmail.com

**Dokumentu-eranskina**

| Izena | Deskribapena | Gaia | |
|---|---|---|---|
| A-17-13776-01-51625-001-P7060-01.pdf | 1625 Eskaria Data 2017/12/15 | Euskara | Deskargatu |
| A-17-13776-02-Ticket.pdf | A/17-13776-ren Egiaztagiria Erregistroaren ticketa | Ele bietan | Deskargatu |

### 2 - Mezuak

| | | |
|---|---|---|
| A/17-13776 | Areta Cortés, Esther<br>[2017ZAZE0050] dokumentu berri bat duzu zure kontuan | 2018/01/09 |
| A/17-13776 | Marenon Cortes Arantza<br>Solicitud registrada / Eskaera erregistratuta | 2017/12/15 |

### 3 - Elkartutako espedienteak: 2017ZAZE0050

**Aukeratutako espedientearen deskribapena**

**Kodea:** 2017ZAZE0050

**Irekitze-data:** 2017/12/26

**Espediente motaren izena:** Txokolatadak ospatzeko azoka erabiltzeko eskaerak

**Gaia:** ABENDUAREN 29 AN TXOKOLATADA BAT EGITEKO BAIMEN ESKAERA.

**Espedientearen jakinarazpenak:**

| Kodea | Data | Ordua | Gaia | Irakurtzeko epea | |
|---|---|---|---|---|---|
| Z/18-00139 | 2018/01/09 | 11:35 | 29 AN AZOKA PLAZAN TXOKOLATADA OSPATZEKO BAIMENA<br>2017ZAZE0050-ren irteera | 9 egun | Deskargatu |

# 5. AHOLKUAK

## 1 Interneten seguru nabigatzeko aholkuak

Interneten seguru nabigatzeko aholkuak (Iturria Kzgunea):

- **Erabili pasahitz indartsuak eta seguruak:**

  Aholkatzen da pasahitz indartsuak erabiltzea, hitzez eta zenbakiz osatuta; karaktere ezberdinekin, eta 8 karaktere gutxienez. Ez da komeni erabiltzea informazio pertsonalik, eta komeni da noizbehinka aldatzea.

- **Eguneratu sistema eragilea eta aplikazioak:**

  Garrantzitsua da sistema eragilea eguneratuta edukitzea, arriskurik ez izateko. Eguneraketei esker konpondu daitezke sistemaren eta aplikazioaren segurtasun arazoak.

- **Jaitsi aplikazioak webgune ofizialetatik:**

  Aplikazio batzuk ahuldurak edo malware motaren bat izan ditzakete, eta ordenagailua izorratu dezakete. Horregatik, aplikazioa jaitsi beti webgune ofizialetatik.

- **Erabili antibirus egokia:**

  Zibererasorik edo bestelako arriskurik ez gertatzeko, ezinbestekoa da antibirus eguneratu bat izatea.

- **Posta elektronikoa igorle ezezagun batena denean:**

  Ez zabaldu fitxategia igorle ezezagun batena bada. Ahal dela ez sartu esteka batean, baldin eta eskatzen badizute zure datu pertsonalak zuzentzeko, bereziki bankukoak eta administraziokoak badira.

- **Arduraz erosi Internet bidez:**

  Erosketak egitean, ohartu zaitez webgune seguru bat erabiltzen ari zarela. Kontuan hartu helbide barrako ezaugarri bi:

  - Giltzarrapo itxia duen ikonoa.
  - Https protokoloa (http barik).

- **Tentuz ibili zureak ez diren wifi sareekin.**

# 6. KIROLA ONLINE ATARIA

## 1 Kirola online atariaren deskribapena

Kirola online, kiroldegiko hainbat tramite egiteko ataria da. Bertatik erreserbak edota ordainketak egin ahal izango ditugu. Ataria erabiltzeko pasahitza eskatu behar dugu.

https://www.arrasate.eus/eu/udala/udal-sail-eta-zerbitzuak/kirola/app-berria




# 7. ARRASATEON APP BERRIA

## 1 Arrasateon app berriaren funtzioak

ArrasateOn telefono mugikorrerako aplikazio berria da eta bere funtzioen artean daude: udal agenda kontsultatu, udalari mezuak bidali, informazio lortu.



Android sistema eragilea erabiltzen duten telefono mugikorrentzat prestaturik dago. Play Storen aurkituko dugu: **GOOGLE PLAY**.

## *1.1 Atalak*

Informazio orokorra. Bertan farmaziak, garraioak edo ohola kontsultatzeko aukera daukagu.



- **Agenda:**




- **Albisteak:**




- **Gertakariak:**



# 8. ERANSKINAK

## 1 B@KQ-ren eraskinak

**B@kQ eskaera egiterakoan jasoko ditugun mezuen adibideak**

- **Lehen mezua**

  **IZENPEren B@k Qualifikatua / B@k Qualificada de IZENPE**

| **Erabiltzaile preziatua:** | | **Estimado/a Usuario/a:** |
|---|---|---|
| Mezu elektroniko honen amaieran, zure B@kQ baliabidearen koordenatuak aurkituko dituzu. Koordenatu horiekin identifikatu ahal izango zara eta modu telematikoan egin ahal izango dituzu tramiteak hainbat zerbitzu elektronikotan. | | Al final de este correo electrónico encontrará las coordenadas de su B@kQ con la que podrá identificarse y tramitar de forma telemática en distintos servicios electrónicos. |
| Horretarako, hurrengo estekan gidatuko zaituzten jarraibideei jarraituta, osatu beharko duzu jaulkipena: sakatu hemen » | | Para ello debe completar su emisión siguiendo las instrucciones que le guiaran en el siguiente enlace: pinche aquí » |
| Ziurtatu IZENPEri identifikazioan eman zenion telefono mugikorra hurbil duzula, bertan jasoko baituzu pasahitza emango dizun SMSa. MEZU Aplikazioa baduze zure | | Asegúrese de tener cerca el teléfono móvil que proporcionó a Izenpe en la identificación donde recibirá un SMS con la contraseña. Si tiene la aplicación MEZU |

| Erabiltzaile preziatua: | | Estimado/a Usuario/a: |
|---|---|---|
| mugikorrean pasahitza jasoko duzu bere arrera erretiluan. | | instalada en su móvil recibirá la contraseña en su bandeja de entrada. |
| Itsasontzi joko lekua » Posición Juego de Barcos » | | **xxxx xxxx xxxx xxxx** |
| Itsasontzi joko erantzuna » Respuesta juego de Barcos » | | **1111 1111 1111 1111** |
| **EZ erantzun posta-kontu honi**. Edozein zalantza izanez gero, jar zaitez IZENPErekin harremanetan 902 542 542 / 945 016 290 telefonoan edo cau-izenpe@izenpe.eus helbidearen bidez. | | **NO responda a esta cuenta de correo**. Para cualquier duda póngase en contacto con Izenpe el 902 542 542 / 945 016 290 o a través de cau-izenpe@izenpe.eus |

- **Bigarren mezua**

**VERIFICACIÓN B@k Y B@kQ / B@k ETA B@kQ EGIAZTAPENA**

| Ongi etorri: | | Bienvenido/a: |
|---|---|---|
| **Zure B@kQ behar bezala bidali da.** | | **Su B@kQ ha sido correctamente emitida.** |
| Une honetatik aurrera, euskal administrazioekin hainbat zerbitzu on line kontsultatzeko eta tramitatzeko erabil dezakezu. | | Desde este momento puede hacer uso de ella en la consulta y tramitación online en distintos servicios de las administraciones vascas. |
| Kontuan izan B@kQ pertsona fisikoak identifikatzeko baliabide bat dela, kautotzeko eta sinatzeko aukera ematen duena. Elementu hauek osatzen dute: | | Le recordamos que B@kQ es un medio de identificación de personas físicas, para autenticación y firma, formado por: |
| ○ Erabiltzaile-zenbakia, bat datorrena erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin.<br>○ Pasahitza, aldatu berri duzuna.<br>○ Koordenatu-joko bat.<br>○ Ziurtagiri kualifikatu bat, biltegi | | ○ Un número de usuario coincidente con el DNI/NIE del usuario.<br>○ Una contraseña, que acaba de cambiar.<br>○ Un juego de coordenadas. |

| Ongi etorri: | | Bienvenido/a: |
|---|---|---|
| zentralizatu batean, hodeian, sortzen dena eta sinadura eskatzen duten egintzetarako baliagarria izango dena. | | ○ Y un certificado cualificado emitido en un repositorio centralizado, en la “nube”, que servirá para los actos que soliciten firma. |
| Horrez gain, eta modu osagarrian, B@k baliabidearen oinarrizko bertsioa du. Bertsio horrek erabilera errazagoa du, eta hain kritikoak ez diren tramiteetarako erabiliko da. | | Además, tiene de forma complementaria la versión básica B@k para trámites menos críticos pero de uso más sencillo. |
| Azkenik, eta zurekin harreman zuzena dugula ziurtatzeko, posta elektronikoko kontu honen egiaztapena osatzea eskatu nahi dizugu, esteka honi jarraituta » | | Por último, y para asegurarnos una correcta comunicación con usted le solicitamos que complete la verificación de esta cuenta de correo electrónico siguiendo el siguiente enlace » |
| » EZ erantzun posta-kontu honi. Edozein zalantza izanez gero, jar zaitez harremanetan IZENPErekin. | | » NO responda a esta cuenta de correo. Para cualquier duda póngase en contacto con Izenpe. |